



## ETXALARKO UDALA

Andatzala, 15 - 2. solairua - 31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tel: 948-435005 - Fax: 948-635232  
e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

### ETXALARKO IGERILEKUETAN SOROSLE LANETAN ARITZEKO DEIALDIA

## 2022ko DENBORALDIA

1.- Etxalarko Udalak bi sorosle kontratatu nahi ditu igerilekuen 2022ko denboraldirako, sorosle eta bertze lan batzuk egiteko.

2.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak hauexek dira:

- Sorosle lanetan aritzeko titulua (urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretuan eta urriaren 20ko 255E/2021 Foru Aginduan ezarritakoarekin bat eginik).

	<b>2022ko DENBORALDIA</b>
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIAK	Sorospena ur-instalazioetan
	Sorospena ur-espazio naturaletan
	Igeriketa-jarduerak
	--
KIROL IRAKASKUNTZAK	Salbamendu eta Sorospeneko kirol-teknikaria
	Salbamendu eta Sorospeneko goi-mailako kirol-teknikaria
LANBIDE HEZIKETA	Natur inguruneko eta aisialdiko gidaritzako teknikaria
	Gorputz- eta kirol-jardueren animazioko goi-mailako teknikaria
	Egokitze Fisikoko goi-mailako teknikaria
	Irakaskuntza eta animazio soziokiroleko goi-mailako teknikaria
BERTZEAK	Maiatzaren 19ko 123/2003 Foru Dekretuan eskatzen zen prestakuntza hori 2018ko abenduaren 16a baino lehen lortu behar zena

- Euskara menperatzea.
- Egin beharreko lanetarako gaitasuna izatea.
- Administrazio publikoaren edozein lanpostutarako ezgaiturik ez egotea eta hartatik bereizia ez izatea.

3.- Deialdian parte hartzeko eskabideak udaleko bandoan adierazitako epean aurkeztuko dira udal idazkaritzan, agiri hauek erantsirik:

1. Curriculumua
2. Lan eskarmentua
3. Sorosle titulua (aurreko oinarrian azaldutakoren bat)
4. Erantzunkizunpeko adierazpena (eredua behean)

4.- Hilabeteko lansari garbia **1.184,60 eurokoa** izanen da. Kontratatuari hileroko ordainsarrietan legezko atxikipenak egingen zaizkie. Gizarte Segurantzako Araubide orokorraren arabera, dagokien kotizazioa ordainduko da.

Esleipendunak 100,00 euroko fidantza jarriko du kontratua sinatzean; hura bukatzean itzuliko zaio, betiere kontratuak iraun duen bitartean ez bada gora beherarik izan; halaber, kontratua esleitu ondotik, ekainaren 13tik aitzin uko egiten bazaio, fidantza ez da itzuliko.

5.- Lan kontratuaren iraupena:

- Hasiara: 2022ko ekainaren 24an (igerilekuak irekiko dira ekainaren 25ean).
- Bukaera: 2022ko abuztuaren 29an (igerilekuak itxiko dira abuztuaren 28an).

Igerilekuen denboraldian egin beharreko ordu-kopurua kontuan harturik, bi sorosleen artean adostuko da bakoitzak egin beharreko lanaldia (txandak, egunak, orduak, etab.), hori bai, igerilekuetan beti sorosle bat dagoela bermaturik.

6.- Egin beharreko lanak hauexek dira:

- Instalazioak goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte irekiak edukitzea, jai egunak barne, sorosle lanetan aritzearren.
- Uraren inguruko betebeharrak betetzea, horien artean hauexek: uraren kalitatea zaindu, indarrean diren aginduen arabera, eta kontrol ofizialeko liburuan egunero egindako analisisien emaitzak jaso, hau ere indarrean den araudiaren arabera.
- Instalazioen kanpoko mantenimendu eta garbiketaz arduratzea, bertzeak bertze: lorategiko belarra moztu, arketak garbitu, etab.
- Udal igerilekuak ireki aitzinetik kontratatuek instalazioak behar bezala jarri behar dituzte, eta denboraldia bukatutakoan erabiltzeko modu egokian utzi.
- Sorosleek hala nahi izanez gero, igeriketa ikastaroak eman ahalko dituzte. Kasu horietan, ikastaroen prezioa sorosleek erabakiko dute, eta irabaziak beraientzat izanen dira.

Aipatutako lanei dagokienez, Udalak edo honen ordezkariak ezartzen dituen jarraibideak beti kontutan hartuko dira.

Igerilekuen funtzionamenduari buruzko lege-araudia bete behar dute; osasun egoera dela eta, aldaketak egin behar badira, betebeharrak egokituko dira neurri berriei ere.

7.- Indarrean den legerian ezarritako kasuez gain, Udalak kontratua desegiten ahal du, bere ustez hitzartutako baldintzak betetzen ez badira edo zerbitzua txarra bada, eta kontratatuek ez dute inolako kalteordainetarako eskubiderik izanen.

8.- Udalak igerilekua erabili ahalko du iruditzen zaion edozein jardueratarako, hala bada.

9.- Baldintza-plegu honek sor dezakeen edozein zalantza Etxalarko Udalak ebatziko du.

Etxalarren, 2022ko maiatzaren 5ean.

Alkatea,

